

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ILE-APAINDEGIETAKO ETA IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIO ETA PRODUKZIO ESZENIKOETAKO LANEN PROTOKOLO TEKNIKOAK	Iraupena	40
		Berariazkoa	
Kodea	UF0828		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Ile-apainketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ile-apainketa tekniko-artistikoa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Ile-apaindegietarako eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetarako protokolo teknikoak eta orrazkerak	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ile-apaindegietan eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetan ilearen forma aldatzea	Iraupena	70

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0794_3 ILE-APAINDEGIETARAKO ETA IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIO ETA PRODUKZIO ESZENIKOETARAKO PROTOKOLO TEKNIKOAK ETA ORRAZKERAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1, LB3 eta LB4 lanbide-buruzapenekin, aldi baterako ile-aldaketak, ile bilduak eta ile-akaberak egiteari dagokionez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ikus-entzunezko bitartekoak eta bitarteko eszenikoak ile-apainketa tekniko-artistikoko prozesuetarako beharrezkoak diren faktore espezifikoekin erlazionatzea.

EI1.1 Ikus-entzunezko bitartekoak irudia erregistratzeko euskarrien arabera sailkatzea.

EI1.2 Azaltzea arteen eta jarduera eszenikoen espazioaren eta denboraren jarraitasunak nola eragiten duen ile-apainketa tekniko-artistikoko ukituak emateko prozesuetan edo aldaketetan.

EI1.3 Argazkigintzan, zineman eta telebistan zer plano-mota egin daitezkeen azaltzea, eta ile-apainketako material-motan, tekniketan eta emaitzetan duten eragina baloratzea.

EI1.4 Ikuslearen eta aktorearen arteko distantziak orrazkeren akaberari eta errealismoari nola eragiten dieten aztertzea.

EI1.5 Ikus-entzunezko produkzioetan eta produkzio eszenikoetan erabiltzen diren argiztapen-iturriak eta argi-motak sailkatzea.

EI1.6 Produkzio-inguru desberdinetako ezaugarriak identifikatzea, ilea-apainketako prozesuak egokitzeko.

A2: Ile-apaindegietan, ikus-entzunezko produkzioetan eta produkzio eszenikoetan egiten diren orrazkera-prozesuen eta aurpegiko ile-elementuen lan teknikoen protokolo normalizatuak prestatzea.

EI2.1 Ile-apainketako lan teknikoen protokolo normalizatuak egiteko jarraitu beharreko metodoa deskribatzea.

EI2.2 Laneko protokolo normalizatuetan jaso beharreko ile-apainketako lan teknikoak identifikatzea.

EI2.3 Ile-apaindegietan, ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako egiten diren ile-apainketako lan teknikoetan bat datozen alderdiak eta alderdi desberdinak jasotzen dituen taula bat egitea.

EI2.4 Ile-apainketako lan teknikoen protokolo normalizatuak egitea, ile-apaindegietara, ikus-entzunezko produkzioetara eta produkzio eszenikoetara egokituta, eta fase bakoitza eta fase bakoitzean behar diren bitartekoak deskribatzea.

EI2.5 Ile-apainketako lanetan eragina duten ilearen eta buru-larruazalaren ezaugarriak eta alterazio estetikoak identifikatzea, ile-apaindegietako, ikus-entzunezko produkzioetako eta produkzio eszenikoetako protokoloak prestatzeko.

EI2.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, ile-apaindegietako lan teknikoen protokolo hauek egitea eta horietan jasotzea faseak eta horien sekuentziazioa, aplikatzeko teknikak, kosmetikoak, aparatuak, bitartekoak eta egiteko behar den denbora komertziala:

- Ile-mota desberdinen higiena eta egokitzapena.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen ile-mozketak.
- Erabateko kolore-aldaketak eta kolore-aldaketa partzialak.
- Forma-aldaketa iraunkorrak.
- Teknika desberdinak erabiliz egindako orrazkerak eta akaberak: erruloak, eskuko lehorgailua, beste batzuk.
- Orrazkera bilduak.
- Ile-ordeak, ile-luzapenak eta ile-eranskinak jartzea.
- Bizarraren eta bibotearen txukunketa.

EI2.7 Gidoi zinematografiko bat emanda, produkzioan parte hartzen duen pertsonaia bakoitzaren ile-apainketako lan teknikoen protokolo normalizatuak prestatzea.

EI2.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan moda-desfile bat prestatzeko kasu praktiko batean:

- Diseinatzailearen edo diseinatzaileen jarraibideak interpretatzea.

- Erakutsiko diren orrazkeren protokoloak egitea.

A3: Behatzeko eta elkarriketarako egiteko teknikak aplikatzea ilearen ezaugarrien azterketari, eta ile-apainketa aurreratuko teknikak egiteko behar diren bitartekoak aukeratzea.

EI3.1 Ileanen egitura, ezaugarriak eta propietateak deskribatzea.

EI3.2 Buru-larruazalaren eta haren eranskinen egitura deskribatzea eta egiten dituzten funtzioekin erlazionatzea.

EI3.3 Ile-motak eta haien ezaugarri fisikoak —adibidez, iragazkortasuna edo porositatea, lodiera eta testura—, buru-larruazaleko antolamendua eta banaketa eta ile-apainketako prozesuetan duten eragina identifikatzea.

EI3.4 Ileanen egiturazko alterazioak deskribatzea eta ile-apainketako prozesuetan duten eragina azaltzea.

EI3.5 Ilea aztertzeke eta baloratzeko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Buru-larruazalaren eta ilearen egoera zein den erreparatzea zuzenean eta/edo irudia handitzeko metodoekin (lupak, mikrokamerak, mikrobisorea eta beste batzuk).
- Zuzenean behatuta ikustea ilearen ezaugarriak: kantiitatea, banaketa, luzera, forma, testura, norabidea, kolorea eta beste batzuk.
- Iragazkortasun- eta porositate-mailari eta ileak pairatutako prozesu fisikoei eta kimikoei erreparatzea, eta ilearen egoera deskribatzea.
- Ilea eta buru-larruazala aztertuz lortutako datuak fitxa tekniko batean erregistratzea, eta haien balorazioa egitea.
- Erabiliko diren tekniken arabera zer tresna, material eta kosmetiko behar diren adieraztea.

EI3.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuak dituzten kasu praktikoetan:

- Bezeroaren eskaeren arabera diseinua definitzeko aukera emango duten elkarriketa egiteko teknikak aplikatzea, eta eskaerak fitxa teknikoan erregistratzea.
- Egindako behaketaren arabera, diseinua egiteko egokiak diren teknikak aukeratzea.
- Kosmetikoak konposizioaren, formaren eta orrazkeran duten eraginaren arabera aukeratzea eta sailkatzea.
- Formaz aldatzeko erabiltzen diren kosmetikoak emateko jarraibideak eta haien dosimetria definitzea.
- Ileanen egoeraren eta erabiliko den tekniken arabera aukeratzea eta sailkatzea osagarriak eta aparatuek, eta haien egoera egiaztatzea eta fabrikatzailearen argibideak errespetatzea.
- Ileordeak, ile-eranskinak eta gehigarriak ile-kantitatearen eta ile-luzeraren arabera eta lortu nahi diren emaitzen arabera aukeratzea.

A4: Ile-apaindegietako, ikus-entzunezko bitartekoetako eta produkzio eszenikoetako lan teknikoak egiteko protokolo pertsonalizatuak diseinatzea.

EI4.1 Ile-apaindegietako, ikus-entzunezko bitartekoetako eta bitarteko eszenikoetako bezeroek eska ditzaketen lanen proposamen teknikoak zerrendatzea.

EI4.2 Ileanen eta buru-larruazalaren ezaugarriak eta aldaketa estetikoak, oro har, azaltzea, eta lan teknikoaren protokolo normalizatuera egokitzeke identifikatzea.

EI4.3 Ile-apainketako lan tekniko pertsonalizatuak diseinatzea, pertsonaren ezaugarri eta eskaeretara ondoen egokitutako teknikak eta kosmetikoak identifikatuz eta aukeratuz.

EI4.4 Ile-apainketako lan teknikoaren (higienea eta egokitzapena, mozketa, kolorea, forma-aldaketak eta beste batzuk) protokolo pertsonalizatuak prestatzea.

EI4.5 Proposamen teknikoak bezeroei, ikus-entzunezko produkzioei eta produkzio eszenikoei, onar eta onets ditzaten, aurkezteke jarraibideak deskribatzea.

EI4.6 Ile-apainketako prozesuetako (higienea, egokitzapena, mozketa, aldi baterako forma-aldaketak edo forma-aldaketa iraunkorrak, kolore-aldaketak, kosmetikoak, teknikak eta aparatuek) ustezko bezeroekiko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Modeloen profila identifikatzea.
- Ile-apainketako lan teknikoak zentro-motara, ikus-entzunezko bitarteko motara edo bitarteko eszeniko motara egokituz aukeratzea.
- Laneko protokoloak deskribatzea, hautatutako bezero-motaren beharren arabera.

EI4.7 Modeloekin egiteko kasu praktiko batzuetan:

- Ile-apainketako lan teknikoaren protokolo normalizatuak bezeroaren eskaerak eta beharrak kontuan hartuz egokitzea eta pertsonalizatzea.
- Fitxa teknikoan erregistratzea bezeroari eta laneko protokoloari buruzko datuak, adieraziz teknika-kopurua, haien sekuentziarioa eta maiztasuna, eta osagai, kosmetiko edo tekniken batekiko kontuan izan beharrekoak edo kontraindikazioak.
- Bezeroaren beharretara eta eskaeretara egokitzen diren proposamen alternatiboak diseinatzea.

Edukiak

1. Bitarteko eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: ile-apainketa tekniko-artistikoan kontuan izan beharreko alderdiak.

- Arteen eta produkzio eszenikoaren eta ikus-entzunezko produkzioaren sektorea: antzerkia, argazkilaritza, zinema, telebista, ibiltokia...
- Jokaezpazio-motak.
- Ikuslearekiko distantzia.
- Plano-motak.
- Argiaren izaera: intentsitatea, kalitatea, kontrastea.

- Argiztapen-motak.
- Argiztapenak ile-apainketa tekniko-artistikoan duen eragina.
- Pertsonaiaren ezaugarriak. Pertsonaiak: historikoak, fikziozkoak, modeloak, bestelakoak.

2 Ile-apaindegietarako eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetarako lan teknikoen eta orrazkeren protokolizazioa.

- Protokoloko elementuak: prozesuak, sekuentziak, tenporalizazioa, baliabide teknikoak, produktuak eta aparatuak.
- Prozesu teknikoen —kolorea, forma-koloreak, mozketa, ile-luzapenak, orrazkerak eta orrazkera bilduak—protokolo normalizatuak,
- Bezeroari arreta emateko protokoloak.
- Ikus-entzunezko bitartekoetako eta bitarteko eszenikoetako lan teknikoetarako protokolo espezifikoak.
- Ile-apainketa tekniko-artistikoetako lan teknikoen protokolo pertsonalizatuak.

3 Ilean eta buru-larruazalaren azterketa, ile-apainketako prozesuekin lotuta.

- Buru-larruazalaren egitura, fisiologia eta funtzioak.
- Larruazaleko eranskinak: jariakinak eta funtzioak.
- Ilea: motak, egitura, konposizioa eta propietateak.
- Orrazkerak egitean eragina izan dezaketen ilearen egiturazko alterazioak.
- Buru-larruazalaren alterazioak.
- Buru-larruazala eta ilea aztertzeko aparatuak: lupak, Wood-en argia, mikrokamera, pH-metroa, sebometroa, hidratazio-mailaren neurgailua, beste batzuk.
- Datuen erregistroa fitxa teknikoan.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ile-apainketa tekniko-artistikoa